

Sarea :: Baliabide Informatikoak Ikastetxean

**Alfredo Barrainkua Zallo eta
Ainhua Zabala Aranguren , 2025ko Iraila**

- 1- Edozein idatzizko komunikazio zuekin EUSKARAZ izango da
- 2- Ez dizuegu eskatuko erabiltzaile izenik ez pasahitzik

Domeinuak

Domeinuak segurtasun gune bat dira. **Konfidantza** batean elkar erlazionatutako ordenagailuen multzoa. Domeinuak bere kontrolatzailea du.

Domeinuek zenbait zerbitzu ematen dituzte. Guretzat nagusienak:

- Autentifikazio zentralizatua
- Metatze karpeta zentralizatuak

Ikastetxean bi domeinu ditugu:

- IRAKAS : Irakasleen mintegietan eta zuzendaritzan dauden ordenagailuak
- IKAIRA : Ikasgeletako ordenagailuak

IRAKAS domeinuko ordenagailuetatik IKAIRA domeinuko karpetak ikus daitezke. Alderantziz EZ!

Domeinuak :: IRAKAS

IRAKAS domeinuko kontrolatzailea 'txonpolo' da.

Bere helbidea: 'txonpolo.irakas.iurretalhi.eus'

Mintegietako eta zuzendaritzako ordenagailuak domeinu horretan daude.

Gure erabiltzaile izenarekin eta pasahitzarekin autentifikatzen garenean, bi sareko karpeta muntatuko zaizkigu:

M: \\txonpolo\GUREMINTEGIA

X: \\txonpolo\eskola

Karpeta horien antolaketa, mintegien esku eta zuzendaritzaren esku dago

Domeinuak :: IKAIRA

IKAIRA domeinuko kontrolatzailea 'gorbeia' da.

Bere helbidea: 'gorbeia.ikaira.iurretalhi.eus'

Ikasgeletako ordenagailuak domeinu horretan daude. Irakasleak normalean erabiltzen duena barne.






Gure erabiltzaile izenarekin eta pasahitzarekin autentifikatzen garenean, hiru sareko karpeta muntatuko zaizkigu:

M: \\gorbeia\GURETALDEA

U: \\gorbeia\ERABILTZAILEA

X: \\gorbeia\eskola

Ubicaciones de red (6)



Karpeta horien antolaketa irakasle eta ikasleen esku dago, eskola izenekoia izan ezik.


Posta :: posta.iurretalhi.eus

Posta zerbitzaria da eskolan erabiltzen dugun komunikazio sistema nagusia.

Interneten dago, eta beraz, etxetik ere atzipena daukagu.

Helbidea:

<https://posta.iurretalhi.eus>

The image shows the Zimbra login page. It has a blue background with a white central box. At the top of the box is the 'zimbra' logo in blue. Below it is the text 'Iniciar sesión'. There are two input fields: 'Nombre de usuario' and 'Contraseña'. The 'Contraseña' field has a 'Mostrar' button next to it. Below the fields is a blue 'Iniciar sesión' button and a checkbox labeled 'Recordarme'. At the bottom of the box, there is a 'Versión' dropdown menu showing 'Defecto' and a help icon. At the very bottom of the page, there is a small copyright notice: 'Copyright © 2005-2022 Synacor, Inc. All rights reserved. "Zimbra" is a registered trademark of Synacor, Inc.'

LMS :: Moodle

Ikastetxeko ikastaro gehienak Moodle plataforman daude.
Interneten dago, eta beraz, etxetik ere atzipena daukagu.

Helbidea:

<https://moodle.iurretalhi.eus>

Iraganeko plataformen helbideak:

<https://moodle2024.iurretalhi.eus> – Interneter
Zaharragoetan soilik eskolatik daukagu atzipen:

<https://moodle2023.iurretalhi.eus>

<https://moodle2022.iurretalhi.eus>

<http://moodle2021.iurretalhi.eus>

<http://moodle2020.iurretalhi.eus>

....

IurretaMoodle

Hasiera

Euskara (eu) ▾

Sartu

Iurreta LHII Ikastetxeko Ikasware Gunea Ikastaroak

Tolestu guztia

▼ Goi-Mailako Zikloak

- ▶ AK3 - Administrazioa eta Kudeaketa
- ▶ AT3 - Automozioa
- ▶ ME3 - Mantentze-Lan Elektronikoa

▼ Erdi-Mailako Zikloak

- ▶ GA2-A - Gestión Administrativa
- ▶ GA2-B - Administrazio-Kudeaketa
- ▶ GA2-D - Administrazio-Kudeaketa
- ▶ IE2 - Ibilgailuen Elektromekanika
- ▶ TI2 - Telekomunikazioen Instalazioak
- ▶ MA2 - Menpekotasun-Egoeran Dauden Pertsonentzako Arreta

▼ Orokorrak

- 🔗 GZPRL - Curso Básico de Prevención de Riesgos Laborales - Giza-Zerbitzuak 23-24
- 🔗 FMPRL - Curso Básico de Prevención de Riesgos Laborales - Fabrikazio Mekanikoa 23-24
- 🔗 ELPRL - Curso Básico de Prevención de Riesgos Laborales - Elektronika 23-24


?

Webak :: [www](http://www.webak.com)

Ikastetxeak web anitz ditu. Web korporatiboa, [www](#) da.

Helbidea:

<https://www.iurretalhi.eus>



Interneten dago, eta beraz, etxetik ere atzipena daukagu.

Gehien bat, ikastetxeko informazio orokorra eta berriak aurkituko dituzue.

Webak :: www1

Aspaldian ikasleentzat zerbitzuak emateko erabiltzen zen. Egundo, txosten batzuk aurkitu daitezke

Helbidea:

<https://www1.iurretalhi.eus>

Webak :: BLOG batzuk Interneten


Baditugu beste web gune batzuk.

Blogak : <https://elkablog.iurretalhi.eus>

Elektronika mintegiko bloga!

ELKABLOG :: Iurreta LHilko Elektronikako Erronkak eta Proiektuak



Elektronika Praktikoak



KMTa tailerreko KMTa-D18 eta KMTa-DO8

Don 2012-09-28 19:00:00 [Aldatu](#) [Berrikatu](#) [Zuzi](#)

2015. urtean egin genuen Komunikazioak Mikrokontrolatzaileekin Tailerra deituriko tailer bat elektronikako mintegian, eskolako irakasleen artean. Tailer hura gauzatzeko sarriera eta irteera digitalen plakak egin genituen arketetan erabiltzeko. Diseinuak KiCad software librean erabiltz egin genituen. Hona hemen KMTa-D18 eta KMTa-D8 plaken eskemak:



Azken bidalketak

- KMTa tailerreko KMTa-D18 eta KMTa-DO8
- Aldatuena II. Aholkuak UNO eta Arduino MEGA Funtzioak!

Iruzkin berriak
Iruzkinak eta erantzunak.

Webak :: konponketak

Konpontze orokorra eta informatikoa

Helbidea:

<http://konponketak.iurretalhi.eus>

EZ dago interneten, eta beraz, etxetik ezin daiteke atzitu.

Matxuren berri eman eta konpontze eskaerak egiteko.

Webak :: inbentarioa

Hezkuntzako inbentarioaz aparte, ikastetxeko inbentario aplikazioa.

Helbidea:

<http://inbentarioa.iurretalhi.eus>

EZ dago interneten, eta beraz, etxetik ezin daiteke atzitu.

Mintegietako eta tailerretako gailuen inbentarioa. Ez dago denontzat eskuragarri.

Dokumentuak :: hodeia

Ikastetxeko dokumentuak Interneten eskuragarri edukitzeko edo norberaren dokumentuak Interneten edukitzeko, ikastetxean hodei pribatuak ditugu.


Irakasleentzat: hodeia. IRAKAS domeinuarekin lotuta.

Helbidea:

<https://hodeia.iurretalhi.eus>

Interneten dago, eta beraz, etxetik ere atzipena daukagu.

Gauzak konpartitu daitezke, eta norberaren ordenagailuarekin sinkronizatu.



Dokumentuak :: lainoa

Ikastetxeko dokumentuak Interneten eskuragarri edukitzeko edo norberaren dokumentuak Interneten edukitzeko, ikastetxean hodei pribatuak ditugu.

Ikasle eta Irakasleentzat: lainoa. IKAIRA domeinuarekin lotuta.

Helbidea:

<https://lainoa.iurretalhi.eus>

Interneten dago, eta beraz, etxetik ere atzipena daukagu.

Gauzak konpartitu daitezke, eta norberaren ordenagailuarekin sinkronizatu.

Bideo Konferentziak :: BBB


Aspaldi genuen Big Blue Button (BBB) instalatua baina soilik erabiltzen genuen moodle zerbitzuarekin.

Erabilera errazagoa izan dadin, 'Greenlight' izeneko interfaze bat jarri diote eta moodle gabe erabil daiteke.

Edozein irakaslek bideokonferentzia bat antolatu nahi badu, ikastetxeko 'bbb' zerbitzaria erabil dezake.

Helbidea:

<https://bbb2.iurretalhi.eus>



Kanpotik atzipena :: VPNak

Ikastetxean VPNa (Virtual Private Network) daukago kanpotik sartzeko

Fortigate VPN: Suhesiak duen VPNa.

Irakasleren batek behar badu, eskatzea dauka.

Wi-Fi Sareak

Ikastetxean hiru Wi-Fi sare erabiltzen dira nagusiki.

IurretaHLI-Irakasleak:

Soilik sar daitezke irakasleak eta konekta daitezke sareko irakasleen domeinuko karpetetara

IurretaLHI-Ikasleak:

Soilik sar daitezke ikasleak eta konekta daitezke sareko ikasleen domeinuko karpetetara

IurretaLHI-Free:

Sare hau irekia dago eta zuzenean doa Internetera.

NA105 eta NA106 Geletako Eramangarriak eta IRAKAS Domeinua

NA105 eta NA106 geletako eramangarriak IKAIRA domeinuan daude. Beraz, ez dute atzipen zuzena IRAKAS domeinura.

Nola konekta gaitezke irakasleen domeinuko karpetetara?

1	2	3	4	Eraitza
Wi-Fi lurretaLHI-Irakasleak	AUTH IRAKAS Domain User			EZ
Wi-Fi lurretaLHI-Ikasleak	AUTH IKAIRA Domain User	Wi-Fi lurretaLHI-Irakasleak	MOUNT TXONPOLO	BAI
Wi-Fi lurretaLHI-Free	AUTH Local User	Wi-Fi lurretaLHI-Irakasleak	MOUNT TXONPOLO	BAI

Dokumentuak :: Microsoft 365

Hezkuntza Sailak jarri digun hodeia.

Helbideak:

<https://login.microsoftonline.com>

<https://office.com>

Erabiltzailea: xxxx@irakasle.eus

Irakasle.eus guneko postara ere atzipena daukagu.

Kalitatea +++ :: Google


Ikastetxearen kudeaketarako Googleren erramintak erabiltzen dira. Irakasle guztiok daukagu ikastetxeko Google gunerako erabiltzaile eta pasahitza. Horrez gain Fabrikazio Mekanikoko ikasleek ere kontua dute ikastetxeko Google gunean. Fabrikazio Mekanikoan classroom erabiltzen dute ikasleekin.

Gunera sartzeko, <http://www2.iurretalhi.eus> gunean dago lotura zuzena.

Helbidea:

<https://gmail.com>

Erabiltzailea: xxxxxx@iurretalhigle.eus



PTZ Kamerak

Ikasgela batzuetan PTZ kamerak jarrita daude.

Kamera horiek motorizatuta daude eta urrutiko aginte baten bitartez, mugitu egin daitezke, posizio finkoak programatu eta posizio horietara bueltatu urrutiko agintearen bitartez.

Kamerekin batera, irakaslearentzat hari gabeko mikrofonoez ere hornituta daude gela horiek. Etorkizunean, gelako mikrofonoak jarriko ditugu.

Bideo-konferentzietarako primerakoak.

Mehatsuak : Malwarea

Egundo arazo handiak daude sistema informatikoak mantentzeko.

Malware klasikoak:

Birusak, Gusanoak, Troyanoak, Keylogerrak, ... Ez dute behar erabiltzaileak ezer egiterik.

Azkenaldian eta ugaritzen ari direnak, Giza Ingenieritza erabiltzen dutenak dira:

PHISHINGa eta Ransomwarea. Erabiltzailearen laguntza behar dute. Beraz, erabiltzailea engainatu behar dute.

Mehatsuak : PHISHINGa

PHISHING teknikak erabiltzailea engainatzen du beste norbait dela esanez. Normalean, ekintza bat eskatzen dute eta horrela, informazioa lapurtzen dute. Informazio horrekin, beste ekintza batzuk egiten dituzte beste norbait kaltetzeko edo publizitatea bidaltzeko.

Ohikoena, posta elektronikoz bidalitako mezuak. Guretzat oso ezaguna den Zimbraren RE-VALIDATE, adibidez.

INPORTANTEA: Begiratu benetako helbideak, eta ez agerian daudenak.

Mehatsuak : Ransomware

Ransomwareak, PHISHINGak bezala erabiltzailea engainatzen du beste norbait dela esanez.

Normalean, ekintza bat eskatzen dute eta horrekin, informazioa bahitzen dute informazioa zifratuz. Sareko unitateak barne. Berriro informazioa eskuragarri izateko, erreskate diru bat eskatzen dute, horren truke, deszifratze klabea bidaliko dizutela esanez. Gehienetan, dirua hartu eta ez dizute deszifratze gakorik bidaltzen.

Famatua izan da Correos-eko mezueta RamsonWarea.

INPORTANTEA: Begiratu benetako helbideak, eta ez agerian daudenak.

- 1- Edozein idatzizko komunikazio zuekin
EUSKARAZ izango da**
- 2- Ez dizuegu eskatuko erabiltzaile izenik
ez pasahitzik**

That's all Folks!

Eskerrik asko !